

Jaiotzen kopurua mantendu egin zen 2006ko bigarren hiruhilekoan

4.986 ume jaio ziren 2006ko bigarren hiruhilekoan eta erdia baino gehiago lehenengo seme-alabak izan ziren

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2006ko bigarren hiruhilekoko datuetan, 4.986 jaio jaso ziren, hots, iazko aldi berean izandakoen ia kopuru bera. Lurraldez lurralde, Araban 736 ume jaio ziren, Bizkaian 2.536, eta Gipuzkoan 1.714.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2006ko bigarren hiruhilekoan jaioen erdiak baino gehiago, hots, 2.769 ume, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.869 ume (%37,5) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %7ra iritsi ziren. Bizkaian (%42,2), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%44,5) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde historiko horretan baino ez zen gertatu. Aitzitik, Araban eta Gipuzkoan ehuneko hori gairitu egin zen, %45,7ko eta %47,3ko ehunekoak izan baitzituzten, hurrez hurren.

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gora ditu


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatuz gero, oraindik ere nagusi da 30-34 urteko amen taldea. Beraiek izan ziren, bigarren hiruhilekoan ere erditu zirenen ia erdiak. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%26) eta 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %17,8 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatzen direnak %5,8 dira, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen % 3,9 besterik ez du ekarri.

Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %22,3 hartu zuten, eta puntu erdi igo ziren 2005eko bigarren hiruhilekoaren aldean. Bizkaia (%23,3) izan zen Euskal AEko kopuru orokorra baino handiagoa izan zuen lurralde bakarra. Araban eta Gipuzkoan ehunekoak pixka bat txikiagoak dira, %20,4 eta %21,6 hurrenez hurren. Talde horren erditze-adina haurrak eduki dituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa da, ama ezkongabeen %16,9 14 eta 24 urte bitartekoak baitziren.

1. taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Taula konparatiboa.

	2006ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2006ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2005eko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.986	100,0	4.867	100,0	4.974	100,0
Araba	736	14,8	702	14,4	726	14,6
Bizkaia	2.536	50,9	2.473	50,8	2.522	50,7
Gipuzkoa	1.714	34,4	1.692	34,8	1.726	34,7
Amaren adinaren arabera						
<= 24 urte	287	5,8	292	6,0	280	5,6
25 - 29 urte	887	17,8	892	18,3	907	18,2
30 - 34 urte	2.323	46,6	2.172	44,6	2.292	46,1
35 - 39 urte	1.294	26,0	1.299	26,7	1.306	26,3
>= 40 urte	195	3,9	212	4,4	189	3,8
Amaren egoera zibilaren arabera						
Ezkondua	3.876	77,7	3.673	75,5	3.886	78,1
Ezkongabea	1.110	22,3	1.194	24,5	1.088	21,9
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.769	55,5	2.805	57,6	2.818	56,7
Bigarrena	1.869	37,5	1.742	35,8	1.861	37,4
Hirugarrena edo gehiago	348	7,0	320	6,6	295	5,9

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua.



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Fax: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp